



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko irailaren 29a

95. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikuluen b) letra aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legeko 103. artikuluen b) letra, Nafarroako Parlamentuak 2009ko ekainaren 11n onetsitako Foru Legeak ematen dion idazketaren arabera, aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren zuzemenak egin ditzan ongizatearen eta osasunaren teknologiek inberturiko industria ezarri eta garatzeko Nafarroan. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontusail gehigarrien kreditua ez dadin areagotu izaera sozialeko beste kontusail batzuk murrizteagatik. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estellerrian iragan ekainaren 30ean izandako txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da premiazko laguntza zuzenak abian jar ditzan, hein batean arintze aldera esnearen sektorea pairatzen ari den egoera larria. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua prematzen da ez dezan baimendu genetikoki eraldatutako inolako nekazaritza-produkturen entsegu edo laborerik. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak bazter utzia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, emantzipazioko oinarrizko errentaren programari eta Vinsaren bitartez errentan emandako etxebizitzaren zorroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Vinsa enpresa publikoari eta etxebizitzak errentan emateko kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Vinsak etxebizitzaren salerosketarako egin duen azken kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Vinsak etxebizitzak errentan emateko egin duen azken kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.-ren Administrazio Kontseiluko hiru kideak hautatzeko arauak (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta

2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru

parlamentarien elkarteak aurkeztu zuen eta 2009ko ekainaren 12ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aur-

keztu zuen eta 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua b) letra aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua b) letra aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako

Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak eta Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten eta 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua b) letra, Nafarroako Parlamentuak 2009ko ekainaren 11n onetsitako Foru Legeak ematen dion idazketaren arabera, aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako ondoko foru lege proposamena: Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua b) letra, Nafarroako Parlamentuak 2009ko ekainaren 11n onetsitako

Foru Legeak ematen dion idazketaren arabera, aldatzen duena.

Proposamen hori 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren zuzemenak egin ditzan ongizatearen eta osasunaren teknologiek in loturiko industria ezarri eta garatzeko Nafarroan.

FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAIETARAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak, 2009ko irailaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren zuzemenak egin ditzan ongizatearen eta osasunaren teknologiek in loturiko industria ezarri eta garatzeko Nafarroan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko irailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren zuzemenak egin ditzan ongizatearen eta osasunaren teknologiek in loturiko industria ezarri eta garatzeko Nafarroan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren zuzemenak egin ditzan ongizatearen eta osasunaren teknologiek in loturiko industria ezarri eta garatzeko Nafarroan, eta ikerketari arreta berezia eskaini diezaion.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontusail gehigarrien kreditua ez dadin areagotu izaera sozialeko beste kontusail batzuk murrizteagatik.

FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAIETARAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak, 2009ko irailaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontusail gehigarrien kreditua ez dadin areagotu izaera sozialeko beste kontusail batzuk murrizteagatik".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko irailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontusail gehigarrien kreditua ez dadin areagotu izaera sozialeko beste kontusail batzuk murrizteagatik

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Gaietarako Departamentuko kontusail zabalgarriak ez daitezela handitu izaera soziala duten beste kontusail batzuk murriztearen kontura.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estellerrian iragan ekainaren 30ean izandako txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan.

LANDA GARAPENERAKO ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak, 2009ko irailaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estellerrian iragan ekainaren 30ean izandako txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estellerrian iragan ekainaren 30ean izandako txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du txosten bat presta dezan iragan ekainaren 30ean Lizarraldean –nagusiki Ega ibarrean eta Metautengo ibarrean, bai eta Allingo eta Ameskoako toki batzuetan ere– izandako ekaitzak eragindako kalteei buruz. Txosten horretan jasoko da ukitutako eremuaren mugatze geografikoa, bai eta izandako galeren zenbatespena ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Agrupación Española de Entidades Aseguradoras de los Seguros Agrarios Combinados, S.A. (Agroseguro) premiatzen du arindu dezan aseguraturako ustiatzeetan izandako kalteen tasazio-prozesua eta kaltetuei dagozkien kalteordainak ordain diezazkien uzta osoa galdu den kasuetan, aseguru-kontratuaren aurreikusitako epeak bete arte itxaron gabe.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruaren Ministerioaren menpe dagoen Nekazaritzako Aseguruen Estatu-entitatearen aurrean susta dezan beharrezkoak diren azterlan teknikoak egitea, lehenbailehen sartze aldera egurrari dagozkion kalteak zurezkoen laborantzen aseguruaren, halako moduz non berme horrek babestuko dituen bai landareen gaitasun produktiboa mantentzeko beharrezkoak diren kostuak bai etorkizuneko uztetan izan daitezkeen galerengatiko kalteordainak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du balora dezan errenta aitortzearen kontuan hartu beharrezko modulu fiskalak murriztea, ustiatzeak kaltetutako eremuan dituzten nekazariarentzat.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri zehatzak har ditzan kaltetutako nekazariei laguntzeko, hala nola horiei baimena ematea erabateko hondamenaren ondorioz uztatu ezin daitezkeen zereal-lursailak erretzeko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da premiazko laguntza zuzenak abian jar ditzan, hein batean arintze aldera esnearen sektorea pairatzen ari den egoera larria.

LANDA GARAPENERAKO ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak, 2009ko irailaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da premiazko laguntza zuzenak abian jar ditzan, hein batean arintze aldera esnearen sektorea pairatzen ari den egoera larria."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da premiazko laguntza zuzenak abian jar ditzan, hein batean arintze aldera esnearen sektorea pairatzen ari den egoera larria

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du premiazko laguntza zuzenak abian jar ditzan, hein batean arintze aldera esnearen sektorea pairatzen ari den egoera larria.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gobernu zentralarekin batera neurri arau-emaileak adostu ditzan etiketatzea aldatzeko, halako moduz non osagaiak eta ekoiztu eta ontziratatu den tokia agertuko baitira.

3. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du behar diren neurriak ezar ditzan saiheste aldera ekoizpen-kostuen azpitiko prezioa duen esnea sartzea atzerritik.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan baimendu genetikoki eraldatutako inolako nekazaritza-produkturen entsegu edo laborerik.

LANDA GARAPENERAKO ETA INGURUMENENKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan baimendu genetikoki eraldatutako inolako nekazaritza-produkturen entsegu edo laborerik."

Legebiltzarreko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak, 2009ko irailaren 23an

egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko irailaren 11ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, emantzipazioko oinarrizko errentaren programari eta Vinsaren bitartez errentan emandako etxebizitzaren zorroari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du emantzipazioko oinarrizko errentaren programari eta Vinsaren bitartez errentan emandako etxebizitzaren zorroari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du emantzipazioko oinarrizko errentaren programari eta VINSAREN bitartez errentan emandako etxebizitzaren zorroari buruz. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Emantzipazioko oinarrizko errentari dagokionez, zenbat eskabide izapidetu dira, hilabetez hilabete, 2008aren hasieratik gaur arte?

– Eskabideak, guztira: 3.821

– Aldaketak eta uko egiteak: 975

*Hilabetez hilabeteko grafikoak gehitu ditugu, 2008ko urtarrilean hasi eta 2009ko ekainera bitartekoak.

2. Zenbat diru jarri behar izan du Etxebizitza Departamentuak 2008an, eta zenbat jarriko du 2009an, emantzipazioko oinarrizko errentaren programa eta VINSAREN bitartez errentan emandako etxebizitzaren zorroa betearazteko?

2008an, emantzipaziorako oinarrizko errentaren eta alokairuko poltsaren kudeaketarako, 900.000 euro ezarri ziren aurrekontuan eta beste horrenbeste gastatu zen.

2009rako, emantzipaziorako oinarrizko errentaren eta alokairuko poltsaren kudeaketarako, 900.000 euro ezarri dira aurrekontuan.

Etxebizitza Ministerioarekin izapideak egiten ari dira ministerio horrek ordain ditzan emantzipaziorako oinarrizko errenta kudeatzeagatik dagozkion gastuak.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko uztailaren 20an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00198 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

Galdera, Vinsa enpresa publikoari eta etxebizitzak errentan emateko kanpainari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Vinsa enpresa publikoari eta etxebizitzak errentan emateko kanpainari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Vinsari buruz eta etxebizitzak errentan emateko kanpainari buruz. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Errentan ematekoak diren etxebizitzetatik, zenbat dira VINSArenek?

– Guztira, 747 etxebizitza.

2.- Alokairuko zorroko zenbat dira jabe partikularrenak?

– 2006an programa hasi zenetik 2009ko ekainera arte, 400 etxebizitza, guztira.

– 44 etxebizitza lagapen prozesuan daude.

3.- Ba al da une honetan esleitu gabeko etxebizitzarik? Zenbat?

– Alokairuko poltsa: 38, guztira.

1. Esleitu gabeko etxebizitzak, abala jartzea falta dutenak: 11

2. Esleitu gabeko etxebizitzak, ekainean laga direlako: 27.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko uztailaren 20an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Galdera, Vinsak etxebizitzen salerosketarako egin duen azken kanpainari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Vinsak etxebizitzen salerosketarako egin duen azken kanpainari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin

du Vinsari buruz eta etxebizitzen salerosketarako azken kanpainari buruz. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Noiz egin zuen etxebizitzen salerosketarako azken kanpaina?

Salerosketarako azken kanpaina 2008ko abenduaren 1etik 31ra bitartean egin zen.

2.- Zenbat etxebizitza sartu zituen kanpainan?

1.318 etxebizitza.

3.- Zenbat eskabide jaso ziren?

6.508 eskabide jaso ziren; haietatik, 100 ez ziren onartu eta 6.408 onartu ziren.

4.- Zenbat jende dago itxaron zerrendan?

Onartutako 6.408 eskabideetatik, etxebizitza bat eskaini zaie behin betiko 1.318 adjudikazio-hartzailerari. Itxaron zerrendakoei dagokienez, berriz, zerrenda hori egunero-egunero aldatzen ari den arren, gaur arte 864 pertsonari dei egin zaie. Horrenbestez, 4.226 pertsona geratzen dira itxaron zerrendan.

5.- Itxaron zerrendan daudenek jaso al dute inolako jakinarazpenik?

Itxaron zerrendan daudenei, zerrendan duten tokira iristen denean dei egiten zaie.

6.- Itxaron-zerrendako zenbat pertsonak lortu dute, azkenean, etxebizitza bat erostea?

Eskatutako datua etengabe aldatzen doa, zeren eta eskainitako etxebizitzaren kopuru handi bat baitago erantzuna jasotzeko zain dagoena. Halere, une honetan, zerrendako 199 pertsonak berretsi dute eskaini zaien etxebizitza onartzen dutela.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko uztailaren 20an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Galdera, Vinsak etxebizitzak errentan emateko egin duen azken kanpainari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Vinsak etxebizitzak errentan emateko egin duen azken kanpainari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Vinsari buruz eta etxebizitzak errentan emateko azken kanpainari buruz. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Noiz egin zuen etxebizitzak errentan emateko azken kanpaina?

– 2008ko apirilean.

2. Zenbat etxebizitza sartu zituen kanpainan?

– 112 etxebizitza Sarrigurenen.

3. Zenbat eskabide jaso ziren?

– 1.953 eskabide barematu ziren.

– 212 eskabide ezetsi ziren.

4. Zenbat jende dago itxaron zerrendan?

– Azken 170 espedienteei buruzko adjudikazio izapideak egiten ari dira.

5. Itxaron zerrendan daudenek jaso al dute inolako jakinarazpenik?

– Beti telefonoz edo/eta zirkular baten bidez jakinarazten zaie.

6. Itxaron zerrendako zenbat pertsonak lortu dute, azkenean, etxebizitza bat alokatzea?

– Kanpainako 112 etxebizitza.

Itxaron zerrenda:

– 292 etxebizitza, Vinsaren alokairuko poltsakoak (247) eta erabilitako etxebizitzaren poltsakoak (45).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko uztailaren 20an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.-ren Administrazio Kontseiluko hiru kideak hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P., sortzeko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 3.4 artikuluan xedatuta dago korporazioaren Administrazio Kontseiluko kideen heren bat Nafarroako Parlamentuak proposatuta izendatuko dela. Berriz, aipatu legearen 3.3 artikuluan ezartzen denez, kontseiluan "modu proportzionalan egonen dira gizonezkoak eta emakumezkoak, halako moduz non ehunekoa ez den izanen, ez batzuen ez besteen kasuan, ehuneko 60tik goitikoa".

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak idazkia aurkeztu du, eta horren bidez Parlamentuaren proposamena eta zerbitzu juridikoen txosten juridikoa eskatu ditu. Hori guztia ikusirik, Eledunaren Batzarrarekin bat etorriz eta Erregelamenduaren 37.1.9 artikuluari jarraikiz, ondokoa ERABAKI DA:

Lehena. Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.-ren Administrazio Kontseiluko hiru kideak hautatzeko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Nafarroako Parlamentuak hiru pertsona izendatuko ditu Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.-ren Administrazio Kontseiluko kide izan daitezen.

2. Parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek hautagai-zerrendak aurkeztu ahalko dituzte, bakarka edo taldean. Hautagai-zerrendak hiru pertsonaz osatuta egonen dira; horietako bi sexu batekoak izanen dira, eta hirugarrena beste sexukoa, eta hirurek hartuko dute konpromisoa aipatu Foru Legearen 3.2 artikuluan aurreikusitako

erantzukizun eta bateraezintasun araubidea betetzeko.

3. Hautagaiak aurkezteko, parlamentu-taldeek edo foru parlamentarien elkarteek idazki bat zuzenduko diote Legebiltzarreko Mahaiari, eta hari gehituko zaizkio hautagaitzaren onarpenari buruzko adierazpena eta aurreko arauan aurreikusitako hautagaien konpromisoari buruzko deklarazioa.

4. Parlamentu-taldeek edo foru parlamentarien elkarteek Administrazio Kontseiluko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea datorren urriaren 14ko 12:00etan bukatuko da.

5. Hautagaien zerrendak aurkezteko epea amaiturik, proposatutako hautagaiak bigarren eta hirugarren arauetan ezarritako baldintzak betetzen ote dituzten erabakiko du Mahaiak, eta ondoren, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6. Administrazio Kontseiluko hiru kideak Osoko Bilkuran eta isilpeko bozketaren bidez hautatuko dira.

7. Txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak, zenbat postu bete behar diren, beste horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelan.

8. Mahaiak boto-kontaketa egin eta boto gehien eskuratu dituzten hiru hautagaiak hautatu direla aldarrikatuko du.

9. Berdinketarik badago eta horrek Parlamentuaren proposamenean eragiten badu, berdinketak boto kopuru berbera lortu dutenen arteko beste bozketa baten bidez ebartziko dira.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda